

6. BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure markak bezeroei fidagarritasuna eta erosotasuna inspiratuko die, azkenean gure produktua asmakizun berria delako; gainera kurtsoa eta produktuaren garantia eskainiko dugu ondorengo zerbitzua bezala.

Horrez gain, ahal dugun guztia egingo dugu gure bezeroengatik, hau da, arazo bat izaten baldin badute gure produktuarekin horri konponbide bat aurkitzen saiatuko gara, edota zalantzaren bat izanez gero lehenbailehen argituko diegu. Horrela bezeroak mantentzea eta fidelizatzea lortu ahal izango dugu.

Bezeroekin izango dugun harremana pertsonala izango da, bezero bakoitzarekin aurrez-aurre egonez, edota, harreman automatizatua, web orrialdeen edo erantzungailu automatikoen bidez. Izan ere, gure enpresak web gune ofiziala izanda erreztu egiten die bezeroei erosketak egitea.

